

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZAREN ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

Garapenean Laguntzeko Zerbitzua

Garapeneko lankidetzarako urteko diru-laguntzen 2018ko deialdiko UK atala ebatzea

Apirilaren 27an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak garapenean laguntzeko proiektueta-rako diru-laguntzak emateko Gasteizko Udalaren deialdia —2018. urtea— arautzeko berariazko oinarriak, bost ataletan banatuta. Horietako bat, UK atala, honela dago definituta:

UK atala: 2017an hasitako urteko proiektu kateatuen jarraipena. Diru-zuzkidura: 380.000,00 euro.

Ataleko berariazko baremoak oinarrien 2. eranskinean daude jasota.

Joan den irailaren 26an bukatu zen eskabideak aurkezteko epea, eta proposamen hauek aurkeztu ziren garaiz eta behar bezala:

SETEM Hego Haizea. DHL eta DESCA, Kichwa Pucará komunan. Ekuador: 100.000,00 euro.

Manus Unidas: komunitateko ekonomia sendotzea eta elikadura-segurtasuna. Paraguai: 95.362,84 euro.

Manuel Iradier elkarte afrikanista: Walodiral Gasteiz-Hérico. Emakumeen elikadura-buru-jabetza eta ahalduntzea sendotzea, baita haien lidergo eraldatzailea ere. Ginea-Conakry: 100.000,00 euro.

Mundubat Fundazioa: bake-akordioak gauzatzen; atxilotu politikoei bizitza zibilera igarotzen laguntzea. Kolonbia: 100.000,00 euro.

Eskatutakoa, guztira: 395.362,84 euro.

Atal honetan diru-laguntza eskatu ahal izateko deialdiaren oinarrietan eskatzen diren baldintzak betetzen dituzte entitate eskatzaile guztiek, hirian presentzia, egitura eta jarduera edukitzeari dagokionez.

Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak lau proposamenak aztertu, eskabide bakoitzeko fitxa zehatz bat bete eta 2017an onartutako proiektuen gauzatze maila eta aurreikusitako emaitza adierazleen aurrerapenak aztertu ditu. 2018ko abenduaren 10ean egindako txostenean jaso duenez, Manos Unidasen Paraguaiko proiektuak ez ditu betetzen bigarren urteko finantziarioa lortzeko oinarrietan eskatzen diren baldintzak honakoei dagozkienetan: lehen urteko adierazleak betetze maila, lehen urterako aurreikusitako jardueren betetze maila eta beste proiektu batzuekiko artikulazioa. Garapenerako gobernuz kanpoko erakunde eskatzailearekin elkarriketatuta, ezin dituzte eskatutako agiriak eta azalpenak ezarritako epean eman. Horrenbestez, Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak 2. urterako eskatutako eskabidea ez finantzatzea proposatzen du (2018ko diru-laguntza deialdi honetan), eta bere garaian 3. urterako (2019ko deialdia) finantziarioa eskatzeko aukera zabalik uztea.

Beste hiru proiektuak balioetsi dira eta hirurek puntuazioaren ehuneko 50a gainditzen dute.

SETEM Hego Haizea: DHL eta DESCA, Kichwa Pucará komunan. Ekuador: ehuneko 75,00.

Mundubat Fundazioa: bake-akordioak gauzatzen; atxilotu politikoei bizitza zibilera igarotzen laguntzea. Kolonbia: ehuneko 56,38.

Manuel Iradier elkarte afrikanista: Walodiral Gasteiz-Hérico. Emakumeen elikadura-buruja-betza eta ahalduntzea sendotzea, baita haien lidergo eraldatzailea ere. ehuneko 55,13.

Horrenbestez, Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak deialdiaren baldintzak betetzen dituzten hiru eskabideak diruz laguntzea eta Manos Unidasek aurkeztutako ezestea proposatzen du. Azken hau deialdian eskatutako informazioa ez aurkezteagatik eta lehen urteko gauzatze aldian aurreikusitako aurrerapenak egin ez izangatik.

Kontuan hartu dira Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko apirilaren 27an onetsitako deialdiaren oinarri arautzaileetan xedatutakoak.

Kontuan hartu dira Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta lege horren araudia onetsi zeneko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan arautua, eta orobat Toki Korporazioen Zerbitzuen Araudiaren 23. artikuluan eta hurrengoetan eta Gasteizko udalbatzak 2005eko ekainaren 17ko ohiko osoko bilkuran hasierako onespina eman zion eta 2006ko urtarrilaren 13ko ALHAOn —5. zk.— argitaratu zen Gasteizko Udalaren Diru-laguntzak arautzeko Ordenantzan arautua.

Halaber, kontuan hartu dira Gasteizko Udaleko Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren zere-gina eta helburu estrategikoak.

Eskumenak eskuordetzeari buruz alkateak 2016ko maiatzaren 24an emandako dekretua, bai eta Udalaren diru-laguntzak arautzeko ordenantzaren 5.1 artikulua eta Tokiko Gobernu eraberritzeko neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legearen 127.1.g) artikulua ikusi-sirik, Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zinegotzi ordezkariak proposamen hau aurkezten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

Lehen. Garapenerako lankidetzarako urteko diru-laguntzen deialdiko UK atalera aurkeztu eta baldintzak betetzen dituzten hiru eskabideak diruz laguntzea. Jarduera hauek dira:

SETEM Hego Haizea: DHL eta DESCA, Kichwa Pucará komunan. Ekuador: 100.000,00 euro.

Mundubat Fundazioa: bake-akordioak gauzatzen; atxilotu politikoei bizitza zibilera igarotzen laguntzea. Kolonbia: 100.000,00 euro.

Manuel Iradier elkarte afrikanista: Walodiral Gasteiz-Hérico. Emakumeen elikadura-buruja-betza eta ahalduntzea sendotzea, baita haien lidergo eraldatzailea ere. Ginea-Conakry: 100.000,00 euro.

Guztira: 300.000,00 euro.

Bigarrena. Manos Unidak aurkeztutako eskabidea ezestea, deialdian eskatutako informazio ezagatik eta lehen urteko gauzatze-aldian aurreikusitako aurrerapenak egin ez izanagatik.

Hirugarrena. Interesdunei erabakiaren berri ematea, eta orobat jakinaraztea horren kontra, administrazio bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik kontatuta, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Laugarrena. Deialdi honen barruan emandako diru-laguntzak ALHAOn argitara daitezen agintzea, onuraduna, emandako zenbatekoa eta Gasteizko Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen ordenantzaren 14. artikulua xedatutako bestelako informazioa zehaztuta. Dagokion informazioa Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean argitaratzea, diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorreko 20. artikuluekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko abenduaren 11n

Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zuzendaria
ESTIBALIZ PEREDA